

PLaza

46 ■ Joseba Irazokiren disko berria

Folketik rock doinueta pasatu da Belardian taldearekin grabatu duen 'Pobre gara' lan berrian.

Esperientziak trukatzeko batu dira nazioarteko behatokiak Donostian

EAEkoekin bat, Quebec, Italia, Galizia, Katalunia eta Frantziakoek iritziak partekatu nahi dituzte

XABIER MARTIN
Donostia

Mundu zabaleko sei kultur behatokitako kideak lan-jardunaldiak

egiten ari dira Donostiako Kursalean, atzodanik. Quebeceko, Italiako, Frantziako, Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko partehartzaileak daude bihar bertan bukatuko den kongresuan. Euren esperientziak partekatzea da ekimenaren helburu nagusia, elkarri lagungarri gertatzea.

Ramon Zallo EHUKo Ikus-entzuneoetako katedraduna eta Jaurilaritzako Kultura Sailaren aholkua-

lariak atzo azaldu zuenez, «jardunaldietan parte hartuko duten behatoki guztientzat baliagarria izango da ariketa hori egitea». Alegia, kultur behatokiak martxan jartzeko norberak izandako esperientzia partekatzea.

Kultur behatokiak zer izan behar duen eta nola aritu behar duen, horren inguruko eztabaidan parte hartzen ari da Jaurilaritzako Kultura Sailak kudeatzen duen Kultura-

ren Euskal Behatokia, eta harekin batera beste bost behatoki daude: Observatoire de la culture et des communications du Quebec (Quebec), Departament des études, de la prospective et des statistiques (Frantzia), Osservatorio culturale de Piemonte (Italia), Xuntako Kultura Saila (Galizia) eta Generalitateko Kultura Saila (Katalunia).

Atzoko jarduna lan saio itxia egiteko izan zen, eta gaurkoa ere bide

beretik antolatuta dute. Behatokiaren arteko hausnarketarako eta barne lanerako antolatutako jardunak dira. Behatoki bat martxan jartzearekin lotutako alde praktikoa aztertuko dute. Mesede eta kalte egiten duten aldagaiak eta puntu kritikoak azalduko dituzte.

Bihar, kultur behatokiaren kongresuaren azken egunean, jardunaldien ondorioen berri emango dute. Saio irekia izango da. «Programa bikoitza izango da: jardunaldietako ondorio nagusiak eta ekimenaren parte hartu duten behatokiak lotutako akordioak aurkeztuko dira batetik, eta, bestetik, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako lehenengo txostena, *Kultura 07*.

■ TXOSTENEN DATU BATZUK


Museoetako bisitariak

	Bisitariak
Arte garaikideari buruzkoa	1.189.660
Orokorra	433.084
Espezializatua	250.996
Zientzia eta teknologiari buruzkoa	186.746
Arte ederrei buruzkoa	176.653
Tokian tokioa	86.450
Historiari araberakoa	75.623
Etnografia eta Antropologia	48.266
Arkeologiari buruzkoa	41.872
Zientziari edo historia naturalari buruzkoa	33.336
Museo-etxea	800
Beste zenbait	32.577
Guztira	2.556.063


Arte eszenikoen emanaldiak

	Emanaldiak	Ikusleak
Euskaraz	445	82.097
Haurrentzako	335	69.719
Gazte-helduentzako	110	12.378
Gaztelania	818	286.908
Beste zenbait	18	7.837
Testu gabea	75	24.419


Irakurle kopurua




Urtean irakurritako liburua




Arte eszenikoen ikuskizunak



Arte eszenikoen ikusleak



Euskal argitaletxeen fakturazioa



(TURRIA: EUSKO JAURLARITZA)

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako museoetan 2,5 milioi bisitari izan dira aurreko urtean

Kulturaren Euskal Behatokiak 'Kultura 07' txostena plazaratu du askotariko datuekin

X. M.
Donostia

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoa-

ko museoetan 2.556.063 bisitari egon ziren 2006an. Bisitari horietako ia erdiak (%46,5ek hain zuzen) arte garaikideko museoak aukeratu zituen. Euskal Kulturaren Behatokiak bere lehenengo txostenean jasotako datua da hori. Eta horrez gain, beste datu ugari dago *Kultura 07* deitu duten argitalpenean. Esaterako, EAEko 108 argitaletxeek 86 milioi euroko faktura-

zioa izan zuten 2005ean. Euskarazko argitalpenek Euskal Aunomia Erkidegoko liburu guztien fakturazioaren %37,5 osatu zuten. Euskarazko argitalpen guztiak sartzen dira kategoriatan horretan, argitalpen didaktikoak, literatura alorrekoak eta bestelakoak.

Arte eszeniko, ikus-entzunezko, musika, ondarea eta kultura osatzen duten beste hainbat arlotako

datuak bildu ditu Kulturaren Euskal Behatokiak bere lehenengo txostenean. Gehienak 2006 urteari egiten diote erreferentzia, baina badira 2005ekoak ere. Horrez gain, salbuespenak salbuespen, Arabakoa, Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa da *Kultura 07* txostenean jasotako informazioa.

Hiru lurralde horiei dagokienez, antzez-ikuskitzuen saio gehienak

gaztelaniaz egiten direla ere jasota dago adibidez. Ikuskitzuen horien %75,3 gaztelaniazkoak dira, eta euskarazkoak %25 ingurukoak dira. Haurrentzako ikuskitzuen kasuan, berriz, alderantzizkoak dira datuak. Ekitaldien %72 euskarazkoak dira.

Liburutegien inguruko datuak ere biltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak kudeatzen duen Kultur Behatokiaren txostenak. Haren arabera, 100.000 biztanleko liburutegi kopurua 13,36koa zen 2005ean.

KULTUR ESPARRU ESTATISTIKO PROPIOA. Jaurilaritzako Kultura sailburu Miren Azkaratek plazaratu zuen atzo Kulturaren Euskal Behatokiaren lehenengo txostena. «Erreferentziako argitalpena izatera bideratuta dago», esan zuen. «Euskal kulturgintzari buruzko hausnarketa aurrera daraman erakunde liderra den heinean, behatokiaren esparruan gauzatzen ari diren lanak ezagutaraziko ditu urteak izango den txosten honek». Alegia, neurri batean txostena behatokiaren isla ere badela esan zuen.

«Informazioa ez da nahiko gertu bezain osoa», jarraitu zuen Azkaratek, behatokiaren «lehen txostena» dela-eta. Baina bidetari ekin diotela nabarmendu zuen: «Ezagutzari eta konparazioari egokitutako oinarriko adierazleak dituen kultur esparru estatistikoa propio baterako bidetari ekin diogu, baita hura sortzeko eta eratzeko bidetari ere».

Kultura sailburuaren arabera, Kulturaren Euskal Behatokiak «mundu globalizatu baten barnean euskal kultura bultzatzeko xedea dauka». Kulturaren garapeneri kasu egingo dio, alorrak aztertuz. Eta gizarte maila desberdinetan kultura errazago sar dadin jardungo du aurrerantzean ere, «kultur harremanak bultzatuz».